



EBAZPENA, 2023ko ekainaren 8koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baitira Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako izangaien behin-behineko zerrendak.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen 7.3 oinarrian ezarritakoarekin bat etorritik (agindu horien bidez, aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egiten da kidego hauetan: Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan, Hizkuntza Eskola Ofizialetan, Musika eta Arte Eszenikoetan, Arte Plastiko eta Diseinukoetan, Maisu-maistren kidegoan, desagertze dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoan eta Lanbide Heziketako Sektore Bereziakotako irakasle espezialisten kidegoan), honako hau,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Argitara ematea Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako izangaien behin-behineko zerrendak.

Bigarrena.- Hautatutako izangaien behin-behineko zerrendak argitaratuko dira hemen:

LHko sektore bereziakotako irakasle espezialistentzat

<https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) - «Arlo pertsonala» – «Izapideak langileekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2022. Irakasleak. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua-LHko sektore bereziakotako irakasle espezialistak» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Hautespena» – «Deituren arabera zerrenda»/«Puntuazio arabera zerrenda»/«Aukeratze arabera zerrenda» («Adjudikazioa» zutabean «2HE/HE2» edo «1HE/HE1», kasuaren arabera, agertzen zaizkien hautagaiak dira).

Gainerako kidegoetarako

<https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) - «Arlo pertsonala» – «Izapideak langileekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2022. Irakasleak. Salbuespenezko egonkortze-prozesua» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Hautespena» – «Deituren arabera zerrenda»/«Puntuazio arabera zerrenda»/«Aukeratze arabera zerrenda» (hautatutako izangaiak «Adjudikazioa» zutabean «2HE/HE2» edo «1HE/HE1», kasuaren arabera, agertzen direnak dira).

Hirugarrena.- Ordezko izangaien zerrenda argitaratzea, hautatutako izangaien batek izaera hori galtzen badu ere: hautaketa-prozeduratik eratorritako eskubideei uko egiteagatik (2023ko irailaren 30era arte), egon daitezkeen errekurtsioak baiesteagatik edo deialdian eskatutako betekizunak ez betetzeagatik.

Zerrenda hori bigarren ebazpen-zatian adierazitako Interneteko helbidean argitaratuko da.



Laugarrena.—Hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, eskatutako dokumentazioa aurkezten ez dutenek, edo, hura aztertuta, deialdiaren 2. oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez dutela ondorioztatzen bada, karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko dituzte, hargatik eragotzi gabe hasierako eskaera faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizuna. Era berean, eskubide guztiak galduko dituzte azterketa medikoan ez-gaitzat jotzen direnek. Kasu horietan, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak dagokion ebazpena emango du karrerako funtzionario izendatzeko eskubideak galdu direla adierazteko.

Bosgarrena. – Martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuan, uztailaren 23ko 182/2002 Dekretuan edo abuztuaren 30eko 190/2011 Dekretuan aurreikusitako kasuetan dauden pertsonak, kasuan kasu, 3 urteko epea izango dute, karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetzen direnetik, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko. Beraz, karrerako funtzionario izendapenak baldintzatuta egongo dira, deialdian ezarritako hizkuntza-eskakizuna egiaztatu arte adierazitako epean. Hori egiaztatzen ez bada, adierazitako izendapenak ondorioz gabe geratuko dira.

Seigarrena –Hautatutako pertsonen behin-behineko zerrenden aurka, interesdunek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute zerrenda horietan egon litezkeen akatsengatik, bost egun balioduneko epean, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Erreklamazioak honela aurkeztuko dira:

LHko sektore berezietako irakasle espezialistentzat

<https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) - «Arlo pertsonala» – «Izapideak langileekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2022. Irakasleak. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua-LHko sektore berezietako irakasle espezialistak – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Hautespena» – «Erreklamazioak», helbide horretan eskuragarri dagoen «Erreklamazio-orria» betez.

Gainerako kidegoetarako

<https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) - «Arlo pertsonala» – «Izapideak langileekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2022. Irakasleak. Salbuespenezko egonkortze-prozesua» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Hautespena» – «Erreklamazioak», helbide horretan eskuragarri dagoen «Erreklamazio-orria» betez.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 8a

Langileriaren Kudeaketa zuzendaria,

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO